

Ezpalak

JON TORNER

Mingo Balaguer harmonika jotzailer espainiarra buru duen Mingo & The Blues Intruders taldearen lehenengo diskoa plaza-ratu du Gaztelupeko Hotsak zigiluak, *Goin' west* izenburupean.

Ados Teatroa konpainiak *Lola ikusten baduzu, esan aberatsa dela* obra estreinatuko du urriaren 19an Erretereria Hiria Kulturgunean. Gaztelaniatzko bertsoia Garbi Losadak idatzi du, eta Dorleta Urretabizkaik itzuli du euskarara. Suspentsezko istorioa kontatzen du hilaren 23tik 26ra Donostiako Antzoki Zaharrean ere ikusgai izango den antzezlanak. Lierni Fresnedo, Ainhoa Aierbe eta Kandido Uranga dira aktoreak.

Manuel Cañadas dantzari eta koreografo andaluziarraren *Perros en Danza* konpainiak *Petroff... sólo quiere bailar* (Petroff... dantza egitea besterik ez du nahi) obra eskainiko du urriaren 18an eta 19an Bilboko La Fundicion aretoan.



Josu Waliño idazle zumaiarrak *Bederatzi ateak* ipuin liburua (Txalaparta) plazaratu du. Fantasiatzko eta misteriozko bederatzi kontakizun bildu ditu, infernura sartzeko dagoen ate bakoitzeko bana. Hala diote behintzat sustrai zeltikoak dituzten herrialdeetako sinesmenek.

Salvador Dalí, Pablo Picasso, Jorge Oteiza, Joan Brossa, Vik Muniz eta Juan Muñoz artisten lanak bildu dituzte, besteak beste, Gasteizko Artium museoko *Heroinik ez gehiago* izeneko erakusketan. Ikusgai dauden eskultura, margolan, argazki eta bideo instalazioek herioen inguruko gogoeta kritikoa bultzatzen dute. Erakusketak gizakia aldarrikatu nahi du, telebistak eta *couché* paperak sustatzen duten jokatzeko modu heroiko, tragiko eta desmobilizatzailearen aurrean.

Hilaren 9an hasiko dira Getxoko Antzerki Jardunaldiak

SIMULACRO TEATRO konpainiak Algortako Geltokiko plazan eskainiko duen *Con el bulto en la espalda* obrak irekiko du Getxoko Antzerki Jardunaldien 26. edizioa. Euskal Herriko hamahiru talderen antzezlanek osatzen dute egitaraua. Plaza horretan, Areetako Musika Eskolan eta Getxo Antzokian izango dira emanaldiak. Maskaradaren *Obean*, Ados Teatroren *El jefe de todo esto*, Agerreren *Secundo charcos* eta Kunkaren *Sexo Gratis* (argazkian) obrak izango dira antzokian ikusgai. Egitarau osoa eta sarrera salmentari buruzko informazioa www.getxo.net webgunean eskura dezakezue.



Galtzako euskarazko komiki lehiaketa abian da

GALTZAUNDI elkarteak eta Ibarako Udalak Galtzako komiki lehiaketa antolatu dute. Zuri-beltzean edo koloretan egindako komikiak aurkez daitezke, edozein gairi buruzkoak baina, hori bai, euskara hutsean. Hemezortzi urtetik gorakoen mailan, irabazleak 600 euro jasoko ditu eta bigarrenak 400 euro. Gazteen mailan, aldiz, 400 eta 200 euroko sari bana emango dute. Lanak aurkezteko epea azaroaren 26an amaituko da. Lehiaketaren oinarriak: www.galtzaundi.com.

Mikel Aristegi, dantzari eta koreografoak *El Diario Vasco* egunkarian: «Gaur egun banatzen diren diru-laguntzak txikiak dira edo hainbesteko paper-saltsa dago, edozein sortzailei –izan dantza arlokoa zein beste batekoa– laguntza horiek eskatzeko gogoia joan egiten zaiola. Ez dago erdibiderik. Baina bai, duela hamahiru urte baino askoz hobeto gaude (...) Donostian dantza presentzia handiagoa izateak mesede egingo liguke. Maiatza Dantzan ekimenak utzi zuen hutsunea nabari da, eta guztia esan beharra dago, uneotan, dantza kontuetan Euskal Herriko beste hiriburuak baino askoz atzerago gaude».

Paul Zubillaga aktoreak *Gaur & aldizkarian:* «Heziketa edozein arlotan da garrantzitsua. Sorrena duen zerbaitek, treba-

kuntza handia eskatzen du; jendeak aktore lana testu bat hartu, ikasi eta botatzea dela pentsatzen du, baina ez da hori bakarrik. Argazkilariak bere instrumentuak erabiltzen jakin behar duen bezala, aktore batek ere bere erremintak zeintzuk diren jakin behar du (...) Azken finean, milioika pertsona daude mundu honetan eta besteen gainetik burua atera ahal izateko, bakoitzak bere berezitasuna aurkitu behar du».

Fernando Aranburu idazleak euskal gatazkaz *El País* egunkarian: «Indarkeria politikoari dagokionez, hemengo idazleei gai horri buruz gauza asko esateko falta zaiela iruditzen zait. Egin behar hori hurrengo belaunaldien esku ez uztea komeniko litzateke, ez baitute guk daukagun hurbileko informazio eta esperientzia izango».